

URUMEAKO Kronika

2016/06/06



PDF

HERNANI Ekainak 6

Argazkia: Gipuzkoako Foru Aldundia

Argakia: Gipuzkoako Foru Aldundia

[albisteak//GIPUZKOAKO XV. SAGARDO LEHIAKETA](#)

Altzuetakoa, Gipuzkoako bigarren sagardo onena

Gaztañaga sagardotegiak irabazi zuen 74 punturekin; Altzuetak 70 lortu zituen.

HERNANI

2016/06/05 00:00 Igandea

Laugarren urtez jarraian azpitxapeldun geratu zen atzo Hernaniko Altzueteta sagardotegia, Gipuzkoako XV. Sagardo Lehiaketan. Ez da nolanhiko marka Altzuetarena; izan ere, hamabost final jokatu dira,

eta Altzuetak bederatzi aldiz lortu du finalerako pasea. Ibilbide horretan, sei aldiz lortu dute bigarren postua, eta behin hirugarrena.

39tik 6 onenak, atzoko finalean

Finala Donostiako Gastronomiazko Euskal Anaiartean jokatu zen atzo eguerdian. Txapelketan hogeita hemeretzi sagardotegik eman zuten izena, eta seik lortu zuten atzoko finalean egotea: Altzueta eta Akarregi hernaniarrek; eta Aburuza, Alorrenea, Gaztañaga eta Izetak. Epaimahaia Fraisoroko dastagunean ikasi eta diplomatu diren dastatzaileek osatu zuten, eta Gaztañagako sagardoari eman zioten onenaren saria, 74 punturekin. Altzueta bigarren izan zen 70 punturekin; eta Aburuza hirugarren, 65 punturekin.



Izena*

Eposta helbidea*

Iruzkina*

Captcha*